GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0501 - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Zerbitzu Orokorrrak
Programa: 010 - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunaren arloan, Departamentuaren eskumeneko diren foru-politika guztietan genero-ikuspegia eta tratu berdintasuna txertatzen laguntzea da programaren xedea.
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua argi eta garbi diruz laguntzen duen departamentua denez, laguntzen deialdietan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bultzatzen duten baloratzeko irizpideak txertatzea bultzatzen da.
Era berean, administrazio-kontratazioaren arloan, 4/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, Foru Sektore Publikoaren obra kontratuetan klausula sozialak sartzeari buruzkoa, eta 11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeari buruzkoak, aipatzen dituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko klausulen pleguetan txertatzea zaintzen da.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - LK- Lurraldearekiko Konpromezua
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

Ekintzailetza-jarduerari buruzko GEM txostenak, Gipuzkoako lehiakortasun-txostenak eta EUSTATek bildutako datuek generoari lotutako desberdintasunak identifikatzen dituzte, emakumeen ekintzailetza-maila txikiagoarekin eta haiek sortutako enpresek finantzaketa lortzeko zailtasun handiagoekin lotuta, bai eta soldata-arrakala, lan-prekarietate handiagoa eta zuzendaritza-postuetan ordezkaritza txikiagoa izatearekin ere.

Hori honako desberdintasun hauetan islatzen da:

-Ekintzailetzaren eremuan, nolabaiteko gap bat dago, nahiz eta 2024an moteldu egin den AEN (jarduera ekintzailearen tasa) tasetan: gizonak AEN biztanleriaren % 58,6 dira, eta emakumeak, % 41,4. Oraindik ere badira arrakalak finantzaketarekin eta kapitalarekin lotuta, presentzia txikiagoa sektore teknologikoetan eta berrikuntza-intentsitate handiko sektoreetan, eta presentzia txikiagoa hazteko eta eskalatzeko aukera handiak dituzten enpresetan. Oro har, enpresa bat sortzearekin lotutako prestakuntza espezifikoarekin lotutako arrakala desagertu bada ere, ez da gauza bera gertatzen finantza-gaiei buruzko ezagutza-mailari dagokionez; izan ere, gizonen % 44,4k uste dute ezagutza handia edo oso handia dutela, eta emakumeen kasuan, berriz, % 30,5ek. EAEn ekintzailetzarako zenbateko ohikoena 25.500 eurokoa izan da, baina gizonek, batez beste, emakumeen kapitalaren bikoitza baino gehiago mobilizatzen dute (30.000 eta 12.204 , hurrenez hurren).

-Euskadiko Lan Baldintzei buruzko 2020-2024 Inkestaren arabera, soldata-arrakala murriztu egin da, eta 2020an % 18,4 izatetik 2024an % 15,3 izatera igaro da.

-Inkesta beraren arabera, 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen % 18,5ek lanaldi partzialean lan egiten du, eta adin bereko gizonen artean, berriz, % 3,4k. Horrek agerian uzten du lan-modalitate horrek gehiago eragiten diela emakumeei, eta haien garapen profesionala baldintzatzen duela.

-Emakumeek ordezkaritza txikia dute industriako zuzendaritza- eta teknikari-postuetan. Bizkaiko Emakume Enpresaren Behatokiaren arabera 2024an, Gipuzkoan, zuzendaritza-postuen % 27 emakumeek betetzen dituzte, eta % 27,5 emakumeak dira enpresetako administrazio-kontseiluetan. Euskadin, EAEko enpresetako administrazio-kontseiluetako lehendakaritzen % 14 emakumeak dira, eta % 10era jaisten da industriaren kasuan.

-Emakumeek sektore feminizatuetan kontzentratzeko joera dute, errentagarritasun txikiagoa eta lan-baldintza kaskarragoak baitituzte. EUSTATek 2025erako emandako datuen arabera, manufaktura-industriako enplegatuen % 21 emakumeak dira, eta osasun-jardueretako eta gizarte-zerbitzuetako enplegatuen % 78.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Europako Batzordearen 2026-2030 aldirako Genero Berdintasunerako Estrategia, enpleguaren arloan 2030erako helburu nagusia enpleguan dagoen genero arrakala erdira murriztea duena .
 1/2023 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legea. Kontratazio publikoan eta diru-laguntzetan berdintasuna txertatzea, enpresetan berdintasuna sustatzea, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea, zuzendaritza- eta erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua babestea eta berdintasunaren arloko enpresa-jardunbide egokiak aitortzea eta zabaltzea.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

- EL.3.1.1: Pertsonen ekarpenak, gaitasunak eta konpromisoa sustatzera bideratutako enpresaren kultura sustatzea, besteak beste, emakumeen errealitateei erreparatuz.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Emakumeen elkartearentzako laguntza

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	6,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Eskulangintza Sektorearen Sustapena
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Ekintzailetza-maila txikiagoak eta enpresa-garapenerako zailtasunak egotea (finantzaketa lortzea eta enpresa-tamaina, batez ere); beraz, sektorearen kalitatezko eta prestigiozko enplegua lortzera bideratutako jarduerak pertsonen garapen pertsonala, profesionala eta soziala ekarriko du, autonomia ekonomikoa eta pertsonala sustatuz, bai eta gizarteari egindako ekarpena ikusarazten eta balioesten laguntzea ere.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 120 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea
Funtzionala: 433 - Enpresa garapena

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzarioa, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen da, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikatutako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibilitate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea
Funtzionala: 463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

"Emakumeak eta Berrikuntza 2026" eta "Zientzialariak zenbakitan 2025", Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak argitaratuak, ondorioztatzen dute genero berdintasunaren arloan aurrerapen garrantzitsuak izan diren arren I+G sisteman, oraindik badaudela desberdintasun estruktural batzuk, hala nola promozioan eta egonkortze profesionalean dauden oztopoak, kontziliazioan zailtasunak edo emakume erreferenteen falta lidergo postuetan.
EUSTATek Gipuzkoan bildutako datu estatistikoek erakusten dute eremu zientifikoan genero-arrakala dagoela. Emakumeek I+Gn duten presentzia gutxiengoa da, 2023an Gipuzkoan I+Gn aritzen diren langile guztien % 35,2 baitira (dedikazio osoaren baliokidea). Diziplina zientifiko batzuetan, ingeniaritzetan eta beste sektore batzuetan, hala nola enpresetan, arrakala are handiagoa da.
Enpresetan eta IPSLn (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak) I+Gn dedikazio osoa duten langileak I+Gn diharduten langile guztien % 76 dira, eta emakume gutxiago daude (% 31, 2023 antzera). Maila profesionalaren arabera aztertuz gero, % 32ra jaisten da ikertzaileen artean eta % 28ra teknikarien artean, eta batez bestekoa % 43ko konpentsatzen da laguntzaileen mailarekin. Gainerakoetan, Administrazio Publikoan eta Goi Mailako Irakaskuntzan, ordezkaritza % 50etik gorakoa da, nahiz eta ikertzaileei dagokienez % 44koa den, teknikarien eta laguntzaileen artean emakumeen presentziarekin konpentsatuta (% 65-%70 inguru).
Diziplina zientifikoari dagokionez, ingeniaritzan emakumeen presentzia askoz txikiagoa da (% 28), eta nabarmentzekoa da diziplina horren barruan % 24 baino ez direla emakumeak teknikarien artean, % 29 ikertzaileen artean eta % 41 laguntzaileen artean. Gainerako diziplinetan presentzia % 50etik gertu edo gorakoa da, baina batez ere teknikariei eta laguntzaileei dagokienez.
Programak finantzatutako jardueretan:
Fellows Gipuzkoaren Erakarpen programak emakume gehiago ditu: emandako Fellows laguntzen % 57 (2023-2026 datua) emakume ikertzaileentzat izan dira. Aurkeztutako emakumeen ratioa nahiko aldakorra da, % 33 eta % 100 artekoa 2024 arte; mediana hartuta, % 45 litzateke. Ikertzaileak, bigarren urtean, Ikerbasquek ebaluatuko ditu; 2025ean, 3 gizon hautagai izan ziren, eta 2 Ikerbasque gisa onartu ziren; 2024an, 5 hautagai posibletik (3 emakume, 2 gizon) 3 Ikerbasquera igaro ziren (emakume 1 eta 2 gizon).
2025ean finantzatutako I+G proiektuak berrikusi ondoren, ikertzaile nagusi emakumea duten proiektuen kopurua adierazlea % 49koa da I+G proiektuen eskaerak kontuan hartuz gero, eta emandakoak % 63koa.
(eskuragarri dauden azken datuak 2025/11/14, EUSTAT, azken kontsulta 2026ko ekaina)

Berdintasun-agindu nagusiak:

- Erabakiak hartzeko eremu guztietan eta, bereziki, zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurri egokiak hartzea (2/2015 Foru Arauaren 3. eta 21. artikuluak. 4/2005 Legearen 3.7 eta 23 artikuluak; 3/2007 Lege Organikoaren 16. artikulua)
- Lanbide, enpresa, gizarte-ekonomia, sindikatu, politika, kultura edo bestelako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin sustatzea (4/2005 Legearen 24.1 artikulua).
- Hizkera ez-sexista erabiltzea zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakundeen bidez sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan (2/2015 Foru Arauaren 22.1 artikulua; 4/2005 Legearen 18.4 artikulua; 3/2007 Lege Organikoaren 14.11 artikulua; 5.3 Xedapen Organikoa). III. PFI)
- Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak txertatzea (2/2015 Foru Arauaren 25.1 eta 26.1 artikuluak. 4/2005 Legea, 21.1, 21 bis.1; 33 eta 35 L.O. 3/2007; OO.5.4. III. PFI)
- Genero-ikuspegia sustatzea, zientzian, teknologian eta berrikuntzan zeharkako kategoria gisa (17/2022 Legea, 2, 4bis, 4 ter eta 33)
- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea (17/2022 Legea, 2 eta 33; 4 ZTBP; 3.13 ardatza, BERPIZTU)

- Presentzia orekatua duten ebaluazio-organoen osaera (17/2022 Legearen 4 bis artikulua)
- Genero-azterlanak, emakumeen presentzia sustatzeko neurriak eta ikerketa- eta berrikuntza-taldeetan emakumeen presentzia eta lidergoa aitortzea (17/2022 Legearen 4. bis artikulua; 4 ZTBP)
- Emakida-prozedurek genero-joerak ezabatzeko mekanismoak ezarriko dituzte (17/2022 Legearen 4 bis artikulua)
- Aldi baterako ezintasun-egoerak eta baimenetan, lizentzietan eta abarretan emandako denborak hartuko dira kontuan. (17/2022 Legearen 4 bis artikulua)
- Genero-berdintasunerako plana eta jazarpenari aurre egiteko protokoloak izatea (4 bis, 4 ter eta 17/2022 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarria)
- Benetako berdintasun eraginkorra lortzeko neurriak abian jartzea (17/2022 Legearen 4. ter artikulua)
- Berdintasunezko lan-inguruneak sustatzea (17/2022 Legearen 4. ter eta 33. artikuluak)

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

- EL.3.4.3: Goi mailako ikertzaile eta talentuaren erakarpen eta errotzea, ibilbide profesionalak bultzatuz eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatuz.
- EL.3.4.2: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen esparruan, emakumeak erakarri, mantendu eta beren lidergoa sustatzeko esperientzia berritzaileak abiaraztea.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Emakumeak zientzian eta teknologian duen zeregina sustatzea	170.000,00	1,20
Guztira	**170.000,00**	**% 1,20**

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	9,50	puntu
Kuantifikazioa:	170.000,00	(% 0,99)
Ordainketa kredituak:	170.000,00	(% 1,20)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 210 - Enpresa berrikuntza
Funtzionala: 422 - Industria

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

2025ean, Euskadiko biztanleria aktiboaren % 48,5 emakumeak ziren, urteko sexuaren araberako banakapenari dagokionez eskuragarri dagoen daturik berriena. 2026ko lehen hiruhilekoan, emakumeen okupazio-tasa (16-64 urte) % 69,1ekoa izan zen, eta gizonena, berriz, % 73,9koa. Jaitsiera hori nabarmenagoa izan zen emakumeen artean (-0,7 puntu) gizonen artean (-0,2 puntu) baino. Emakumeen langabezia-tasa % 6,9ra igo zen (+0,4 puntu aurreko hiruhilekoarekin alderatuta) eta gizonena % 6,6ra (+0,6 puntu), EAEn langabeziak gora egin zuen testuinguru orokor batean (% 6,2tik % 6,7ra), Gabonetako kanpainaren ondoren eta Ekialde Hurbileko gatazkak eragindako ziurgabetasunaren hasieran iraungitako kontratuei lotuta. Hiruhileko gorakada hori gorabehera, urte arteko alderaketak positiboa izaten jarraitzen du: guztizko okupazioa % 1,9 hazi da 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, ia osorik zerbitzuek eta, neurri txikiagoan, eraikuntzak bultzatuta; industriak, aldiz, enplegua galdu du.
Enpleguaren sektore-banaketak alde nabarmenak erakusten jarraitzen du generoaren arabera. Emakume landunen % 87,5ek zerbitzuen sektorean lan egiten du, eta guztizko enpleguaren % 59,9 dira. Gainerako sektoreetan presentzia txikia du: % 20,9 industrian, % 15,5 eraikuntzan eta % 13,0 lehen sektorean.
Genero Berdintasunaren Indizeari dagokionez, Eustatek Genero Berdintasunaren Europako Institutuaren (EIGE) metodologia berrituan oinarritutako edizio berri bat argitaratu du 2026an, eta Euskadik 66 puntu lortu ditu 100etik 2020an baino bi puntu gehiago . Zifra hori ezin da zuzenean aurrekoarekin alderatu (74,5, 2021eko datua, 31 adierazleren aurretiazko metodologia), edizio berriak indizea 27 adierazlera murrizten baitu eta dimentsioen egitura aldatzen baitu. Egungo neurriarekin, Euskadi EB-27ko batez bestekoa (63,4) baino 2,6 puntu gorago dago, baina Estatuko batez bestekoa (70,9) baino 4,9 puntu beherago. Osasunaren arloa da balorazio onena jaso duena (86,3 puntu), eta denborarena, berriz, desorekatuena da oraindik (62,5 puntu): emakumeek gizonek baino ia bi aldiz denbora gehiago ematen dute adingabeak eta mendeko pertsonak zaintzen, eta erdiak baino gehiagok 10 ordu baino gehiago astean etxeko lanetan, gizonen herenak baino gehiago. Botere-posizioetarako sarbidean ere desberdintasun nabarmenak daude: 50,2 puntu botere ekonomikoan eta 47,4 gizarte-boterean, hauteskunde-zerrenden erregulazioari esker botere politikoan lortutako 73,7 puntuen aldean. (Edizio berriak ez du, oraingoz, lurralde historikoen araberako banakapenik eskaintzen)

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
Atala: 0530 - Proiektu Estrategikoetako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Proiektu Estrategikoak
Funtzionala: 439 - Beste jarduketa sektorial batzuk

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

Enplegu duina bermatua izatea da gure gizartean pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko bide garrantzitsuenetako bat.

Gipuzkoako gizarte-sarean identifikatutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez, egiaztatu da emakumeen langabezia-tasa zertxobait handiagoa dela, eta, aldi berean, okupazio-tasa txikiagoa dela gizonena baino, eta, gainera, intzidentzia handiagoa duela pobrezian. Emakumeen artean, enplegua lortzeko oztopo gehiago dituzten kolektiboak daudela hauteman da (emakume migratzaileak, 45 urtetik gorakoak, desgaitasuna dutenak, beren kargura pertsonak dituztenak, etab.). Era berean, emakumeek ordezkaritza txikia dute gizarteratze enpresetan.

2022-2024 ekitaldietarako Elkar-EKIN Lanean programaren esparruan, egiaztatu da prestakuntza-ibilbide bat egin duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeak prestatutako pertsonen %62 direla, eta programan parte hartu duten pertsonen artean lan-munduan sartutako emakumeak ez direla guztizkoaren %55 baino gehiago. Horrek esan nahi du lan munduan sartutako emakumeen ehunekoa txikiagoa dela lan munduan sartu ahal izateko prestakuntza jaso duten emakumeena baino. Beraz, lehentasunezkoa da aipatutako ehunekoak hobetzea aurrekontu programa hau gauzatuz, lan munduan sartutako emakumeen ehunekoa egungoa baino handiagoa izan dadin azpimarratuz. Emakumea lan munduan sartzeko arazo nagusitzat identifikatu da bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko zailtasuna, nahiz eta dagokion prestakuntza jaso duen. Horrez gain, zailtasunak aurkitu dira lanpostuetara joateko behar den garraio publikoa ez edukitzeagatik. Elkar-EKIN

Era berean, emakumeen enplegagarritasun-datuei buruzko azterlan batean, generoaren araberako segregazio argia hauteman da sektore ekonomikoaren arabera. Emakumeak batez ere zerbitzu-sektorean aritzen dira (% 86,6), gizonak (% 55,6) eta industrian emakumeak (% 11,5) eta gizonak (% 35,1); horregatik, batez besteko soldataren arrakala handia da.

Programa honek ahalegina egingo du emakumea industria-sektorean sartzeko

Lanean 2025-2026 programan parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazle espezifiko batzuk gehitu dira.

Berdintasun-agindu nagusiak:

- Hizkera ez-sexista erabiltzea zuzenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen diren dokumentuetan eta hitzarmenetan (2/2015 Foru Arauaren 22.1 artikulua; 19.4, 23.3 c) 1/2023 Legegintzako Dekretua; 14.11 artikulua, 3/2007 Lege Organikoa)
- Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak txertatzea. 2/2015 FA, 25.1 eta 26.1 art. 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22., 23. eta 24. artikuluak (3/2007 Lege Organikoaren 33. eta 35. artikuluak)
- Sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketetan, bai eta genero-adierazleak ezartzea ere (5.d) eta 24, 2/2015 FA)
- Berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzea, eta gardentasuna eta herritarrei kontuak ematea bermatzea, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.15 artikulua)
- Politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea izatea helburu. 3 eta 19, 2/2015 Foru Araua)

Elkar-EKIN Lanean programari dagokionez:

- Behar diren neurriak hartzea pobreziak eta gizarte-bazterketak emakumeengan duten eragin handiagoari aurre egiteko (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 49.1 artikulua)
- Emakumeentzako enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatzeko eta horiek kontratatzen laguntzeko programak garatzea (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 41.c artikulua)

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten azterlanak eta ikerketak
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Komunikazio ez-sexistarako erabilera

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	5,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)